

Euskadiko Autonomia Erkidegoko BPGk urte arteko %1,9ko igoera izan du 2008ko hirugarren hiruhilabetekoan


Hiruhilekoen arteko hazkundera %0,3 izan da; aldiz, Europako ekonomia nagusiek, espainiarrak barne, tasa negatiboak izan dituzte

Euskadiko Autonomia Erkidegoko ekonomia jardunak sortutako BPG %1,9 hazi da (hazkunde erreala) 2008ko hirugarren hiruhilabetekoan, 2007ko aldi berekoarekiko, EUSTATEk prestatutako datuen arabera.

Hazkunde tasa honek (%1,9) bikoiztu egiten du espainiar ekonomiak lortutakoa (%0,9), 27en Europako Batasunak lortua, (0,8%) eta AEBk lortua (0,8%).

Hiruhilabeteko arteko euskal BPGren igoera, 2008ko bigarren hiruhilabetekoarekiko, %0,3 inguru da. Hiruhilabeteko arteko alde hau bi hamarren negatibo izan da Espainiako ekonomiarentzat eta 27-EBrentzat, eta hamarren bat negatiboa AEBrako. Teknikoki zenbait lurralde atzeraldian sartu dira, bi hiruhilekotan ekonomia murriztuz joan delako; tartean Alemania eta Italia, eta Euro-15 zonako multzoa.

1. grafikoa BPG h. Urte arteko hazkunde tasa. (%)



Urtaro eta egutegiaren eragina zuzenduta daukaten datuak dira.

Iturria: Hiruhilabetekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuko Datuak: EIN. Datuak EB-27, Euro-15 Zona eta EE.BB.: Eurostat.

Sektore eskaintzaileen ikuspegitik, zerbitzu sektoreak eta lehen sektoreak euskal ekonomiaren batz besteko hazkundera gainditu dute, industriak %1 egin du gora eta eraikuntzak %1 behera.

Sektore industriala, hirugarren hiruhilabeteko honetan, oro har hazkunde erritmo egokia du oraindik ere, %1 da igoera.

Eraikuntzaren Sektoreak, hamarkadan lehen aldiz, urte arteko hazkunde tasa negatiboa du (-%0,1), eraikuntzaren azpisektoreak atzera egin duelako eta obra zibilak ezin izan duelako berdindu haren martxa.

Zerbitzu Sektoreak tasa positiboagoa dauka BPGk baino, hazkundera %2,8 da, nahiz eta horren barruan jokamolde positiboak maila ezberdinekoak izan diren. **Merkatu Zerbitzuek** urte arteko %2,3ko hazkundera izan dute, eta **Merkatu Zerbitzuak ez direnek**, aldiz, aurreko hiruhilabetekoetan zeukaten hazkunde erritmo bizia izan dute, %5,6 izan baitute urte arteko igoera.

Lehen Sektoreak hobetu egin du bere hazkunde tasa aurreko hiruhilabetekoekiko, urte arteko hazkundera %2,2 izan du.

Koadroa. BPG h. Eskaintza. Kateatutako bolumen adierazleak. Urte arteko hazkunde tasa (*). Euskadiko A.E.

	2006	2007	2006		2007				2008		
			III	IV	I	II	III	IV	I	II	III
Nekazaritza eta arrantza	-4,4	9,8	-2,4	0,1	9,8	15,5	-0,2	14,9	5,3	-0,2	2,2
Industria	4,2	4,0	3,9	4,3	5,3	4,8	3,9	2,2	1,8	1,4	1,0
Eraikuntza	4,2	4,6	4,2	4,1	5,3	5,0	4,9	3,3	2,4	1,1	-1,0
Zerbitzuak	4,5	4,2	4,6	4,6	4,2	4,0	4,1	4,6	3,6	3,4	2,8
Produktuen gainera zerga garbiak	4,8	3,4	4,2	3,3	3,0	3,6	3,8	3,1	3,5	3,1	1,9
BPGda merkatuko prezioetan	4,4	4,1	4,3	4,3	4,5	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6	1,9

(*) Urtaro eta egutegiaren eragina zuzenduta daukaten datuak dira.

Iturria: Hiruhilabetekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat.

Eskariaren aldetik, aipagarrienak dira Barne Eskariak zazpi ehunen egin duela behera, urte artekoa %1,8 izan arte, eta, kanpoko saldoak ekarpen positiboa egin diola hazkunderari. Hau azken hiru hiruhilabetekoetan gertatu da jarraian, esportazioak gehiago hazi dira (%5,9), inportazioak baino (%5,7).

Osagaiak aztertzen badira, **Etxeetako Azken Kontsumoko Gastuak (Kontsumo pribatua)** urte arteko hazkunde tasa %0,9 izan du; aurreko hiruhilabetekoan baino puntu erdi bat gutxiago portzentajea, eta barne eskariaren aldagaia beherantz gehien egiten duena izaten segitzen du.

Azken Kontsumoko Gastua Herri Administrazioetan (Kontsumo Publikoa), ondasun eta zerbitzuetan Herri Administrazioek egindako gastua kontuan hartuz, aurreko hiruhilabetekoetan bezala, hazkundera %5 baino gehiago da.

2. koadroa. BPG p/m. Eskaria. Kateatutako bolumen adierazleak. Urte arteko hazkunde tasa (*). Euskadiko A.E.

	2006	2007	2006		2007				2008		
			III	IV	I	II	III	IV	I	II	III
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	3,7	3,4	3,7	3,5	3,6	3,7	3,2	3,0	2,4	1,4	0,9
Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua	4,3	5,5	4,2	4,5	5,4	3,9	6,3	6,4	5,1	5,6	5,1
Kapital-eraketa gordina	5,9	5,5	5,8	5,4	6,7	6,0	5,4	5,0	3,1	3,2	2,0
Barne-eskaria	4,4	4,4	4,3	4,1	4,8	4,4	4,4	3,9	3,0	2,5	1,8
Guztizko esportazioak	6,2	7,6	6,7	6,8	6,0	8,5	8,6	7,1	6,9	9,0	5,9
Guztizko inportazioak	6,1	7,6	6,6	6,3	6,4	8,1	8,9	7,2	6,6	8,2	5,7
BPGda merkatuko preziotan	4,4	4,1	4,3	4,3	4,5	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6	1,9

(*) Urtaro eta egutegiaren eragina zuzenduta daukaten datuak dira.

Iturria: Hiruhilabetekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Kapital-eraketa Gordina (Inbertsioa), eraikuntza sektorearen bilakaeragatik gehienbat, puntu eta bi hamarren jaitsi da aurreko hiruhilabetekoarekiko, nahiz eta oraindik ere hazten den euskal ekonomiaren batz bestekotik gora, urte arteko tasan %2ko aldea izanik.

Esportazioak guztira %5,9 igo dira eta **Inportazioak** guztira % 5,7; azken batean horrek esan nahi du gure kanpoko saldoak ekarpen positiboa egiten diola ekonomiaren hazkundeari.

2008ko hirugarren hiruhilabetekoan **5.000 lanpostu neto baino gehiago sortu dira**, urte arteko tasa %0,6 gehiago izanik. Sektoreetan, tasa positiboa ematen duen bakarra zerbitzuena da, hazkundera %1,6 izanik, eta beste sektore guztiek tasa negatiboak dauzkate: lehen sektorean %0,3, industrian %0,2 eta eraikuntzan %3,8.

BPGk lurralde historiko bakoitzean duen bilakaera: 2008ko hirugarren hiruhilabeteko honetan, hazkundeak oso homogeneousak izan dira, urte arteko tasa berdintsuak dauzkate denek, %1,8 Araban, %1,9 Bizkaian eta %2 Gipuzkoan.

Argibide gehiago nahi baduzu:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Javier Aramburu

Tlf:+34-945-01 75 99 Fax:+34-945-01 75 01

Prentsa oharrak interneten: www.eustat.es

Datu- bankuak: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp